

ASEGURUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK
EMATEKO ARAUAK
EUSKADIKO DEMARKAZIOA

2004ko abendua

AURREKARIAK

Euskadiko Demarkazioko Zuzendaritza Batzorde hau, aurrekoak bezala, beti arduratu izan da ikus-onetsia nahitaezkoa izateari zentzua ematen lagunduko dioten arauak bilatzeaz; horretarako, hain zuzen, Elkargoko betekizun hori betetzen duten kideei prestazio jakin batzuk eman dizkie. Ardura horren ondorioz ikus-onetsia bultzatzeko eta, era berean, elkargokideentzat erakargarri izateko proposamen batzuk aztertu dira. Azterketa horiei esker, Demarkazioko Zuzendaritza Batzordeak kideentzako aseguruak kontratatzeke diru-laguntzak ezarri dituen agiri bat onetsi du.

1992. urtetik, Euskadiko Demarkazioko Zuzendaritza Batzordeak aseguruetarako diru-laguntzak emateko arau batzuk aplikatu izan ditu; baina Gizarte Segurantzaren arautegian izan diren aldaketen eta ikus-onetsi bakoitzeko elkargoak jasotakoaren ondorioz arauok egokitzen joan dira. Halaber, orain Estatutu berrietara egokitu dira arauak.

Demarkazioko Zuzendaritza Batzordearen izaera hori Elkargoko indarreko Estatutuetako 3. artikuluko 3. idatz-zatian jasotzen da; hain zuzen, idatz-zati horren arabera Batzordearen eginkizunetako bat da **"Elkargokideentzat lanbide, kultur, asistentzia, prebentzio eta antzeko beste gai batzuei buruz interesgarriak izan daitezkeen jarduera eta zerbitzuak sustatu eta antolatzea"**. 3. artikuluko 19. idatz-zatiak gainera beste hauek ematen dizkio **"Elkargokideen lanbide-interesen onerako izan daitezkeen beste eginkizun batzuk"**.

Eginkizun horiek aintzat hartuta, Euskadiko Demarkazioko Zuzendaritza Batzordeak diru-laguntza mota bi ezarri ditu, jarraian ematen diren arauen arabera eraenduko direnak:

- A.- Erantzukizun Zibileko Asegurua zabaltzeko kontraturako diru-laguntza.
- B.- Aholkularitza enpresen Erantzukizun Zibileko Asegurua kontratatzeke diru-laguntza.
- C.- Istripu eta aldi baterako baliaezintasuneko aseguruak eta mediku-eta kirurgia-asistentzia kontratatzeke diru-laguntza.

1.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA ZABALTZEKO KONTRATUARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ARAUAK

1.1.- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko baldintzak

- a) Euskadiko Demarkazioko bazkide izatea.

- b) *Aurreko urtean obretako zuzendaritzak ikus-onetsita izatea.*
- c) *Urte horretako martxoaren 31 baino lehen FAMarekin Erantzukizun Zibileko Aseguruaren zabaltzea kontratatua izatea.*

1.2.- **Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa**

Soilik emango da hurrengo kopuruetako txikiena:

- a) *Erantzukizun Zibileko Asegurua zabaltzeko egungo "50" modalitatea (frankizia kenduta) edo, etorkizunean aldatuz gero, antzekoren bat kontratatzeko kostua.*
- b) *Diru-laguntza jaso dezakeen elkargokideak kontratatutako modalitatearen zioz ordaindu den sariaren kostua.*
- c) *Obretako zuzendaritzen ikus-onetsi bakoitzeko elkargoak jasotakoaren kontzeptuarekin elkargokideak Elkargoari sortutakoaren %50.*

1.3.- **Diru-laguntzak eskatu eta jasotzeko moduak**

Urteko lehenengo hilabetean Demarkazioko idazkariak jakinarazpen bat bidaliko dio, ofizioz, aurreko urtean obretako zuzendaritzaren bat ikus-onetsi duen elkargokide bakoitzari, diru-laguntza eska dezakeela azaltzeko.

Diru-laguntza eskuratu nahi duten elkargokideek eskabidea gutun baten bidez bidaliko diote dekanuari, baita aseguruaren ordainagiriaren kopia bat ere; gutuna maiatzaren 31 baino lehen jaso behar izango da Demarkazioan.

Idazkariak eskatu diren zenbatekoak zerrenda batean bildu eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio ekainaren 10etik aurrera egiten duen lehenengo bilkuran, bidezkotzat joz gero onets ditzan. Baina ezin bada eman eskatu den zenbateko osorako diru-laguntza, hainbanaketa egingo da jarraian zehazten den erara:

- 1.- *Zabaltzearen egungo "30" modalitateko (frankizia 6.000 €-tara murriztea) kostuaren kopuru bereko edo txikiagoko diru-laguntzetan dena ordainduko da.*
- 2.- *Hori baino zenbateko handiagoarekin eskatutako diru-laguntzen zati bat egungo "30" modalitatearen kostuaren zati finko*

berarekin eta beste zatia obretako zuzendaritzak ikus-onesteko eskubideei dagokien zati proportzionalarekin ordainduko dira, harik eta Zuzendaritza Batzordeak onetsi duen gehieneko zenbatekora heldu arte.

Zuzendaritza Batzordeak partida onetsi ondoren, idazkariak gutun bat bidaliko die diru-laguntza eskatu duten elkargokide guztiei onetsi zaien zenbatekoa zein izan den jakinaraziz; horretaz gain, ordainagiri bat ere bidaliko die, diru-laguntzari buruzko eta diru-laguntza guztiei atxikipena egin behar zaiela ezartzen duen zergaren indarreko arautegiaren arabera PFEZaren atxikipenari buruzko zehaztasunak emanaz.

Ordainagiria izenpetuta itzultzen denean, diru-laguntzaren onuradun den elkargokideari taloi izenduna bidaliko zaio.

2.- AHOLKULARITZA ENPRESEN ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAREN KONTRATUARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ARAUAK

2.1.- Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko baldintzak

- a) *Euskadiko Demarkazioko bazkide izatea.*
- b) *Aurreko urtean obretako zuzendaritzak ikus-onetsita izatea.*
- c) *Aholkularitza enpresako bazkide langilea izatea.*
- d) *Elkargokidea bazkide duen aholkularitza enpresak FAMarekin kontratatua izatea Aholkularitza Enpresen Erantzukizun Zibileko Asegurua.*
- e) *1. puntuan zehazten den diru-laguntza eskatuta ez izatea.*

2.2.- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa

- a) *Erantzukizun Zibileko Asegurua zabaltzeko egungo "50" modalitatea (frankizia kenduta) edo, etorkizunean aldatuz gero, antzekoren bat kontratatzeko kostua.*
- b) *Enpresak ordaindu duen sariaren kostua, zati goi-mailako tituludunen kopurua.*
- c) *Obretako zuzendaritzen ikus-onetsi bakoitzeko elkargoak jasotakoaren kontzeptuarekin elkargokideak Elkargoari sortutakoaren %50.*

2.3.- Diru-laguntzak eskatu eta jasotzeko moduak

Urteko lehenengo hilabetean Demarkazioko idazkariak jakinarazpen bat bidaliko dio, ofizioz, aurreko urtean obretako zuzendaritzaren bat ikus-onetsi duen elkargokide bakoitzari diru-laguntza eska dezakeela azaltzeko.

Diru-laguntza eskuratu nahi duten elkargokideek eskabidea gutun baten bidez bidaliko diote dekanuari; gutuna maiatzaren 31 baino lehen jaso behar izango da Demarkazioan. Baina gutunarekin batera, FAMarekin egin den aholkularitza enpresen erantzukizun zibileko aseguruaren kontratuaren kopia bat eta lehenengo hiruhilekoan ordaindu den polizaren eskabide-galdesortaren eta ordainagiriaren kopia bat ere bidaliko dira.

Idazkariak eskatu diren zenbatekoak zerrenda batean bildu eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio ekainaren 10etik aurrera egiten duen lehenengo bilkuran, beronek bidezkozat joz gero onets ditzan. Baina ezin bada eman eskatu den zenbateko osorako diru-laguntza, hainbanaketa egingo da jarraian zehazten den erara:

- 1.- Zabaltzearen egungo "30" modalitateko (frankizia 6.000 €-tara murriztea) kostuaren kopuru bereko edo txikiagoko diru-laguntzetan dena ordainduko da.
- 2.- Hori baino zenbateko handiagoarekin eskatutako diru-laguntzen zati bat egungo "30" modalitatearen kostuaren zati finko berarekin eta beste zati bat obretako zuzendaritzak ikus-onesteko eskubideei dagokien zati proportzionalarekin ordainduko dira, harik eta Zuzendaritza Batzordeak onetsi duen gehieneko zenbatekora heldu arte.

Zuzendaritza Batzordeak partida onetsi ondoren, idazkariak gutun bat bidaliko die diru-laguntza eskatu duten elkargokide guztiei onetsi zaien zenbatekoa zein izan den jakinaraziz (ordainketaren %50 onespena jasotakoan egingo da eta beste %50 urtearen amaieran, baina horretarako 4 ordainagiriaren frogagiriak bidali behar izango dira); horretaz gain, ordainagiri bat ere bidaliko die, diru-laguntzari buruzko eta diru-laguntza guztiei atxikipena egin behar zaiela ezartzen duen zergaren indarreko arautegiaren arabera PFEZaren atxikipenari buruzko zehaztasunak emanez.

Ordainagiria izenpetuta itzultzen denean, diru-laguntzaren onuradun den elkargokideari taloi izenduna bidaliko zaio.

3.- **ISTRIPU ETA ALDI BATERAKO BALIAEZINTASUNEN ASEGUAREN
ETA MEDIKU- ETA KIRURGIA-ASISTENTZIAREN KONTRATUARI
DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ARAUAK**

3.1.- **Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko baldintzak**

- a) Euskadiko Demarkazioko bazkide izatea.
- b) Aurreko urtean ikus-onetsiren bat egin izana.
- c) Urte horretako martxoaren 31 baino lehen diru-laguntza jasotzeko diren aseguruak FAMarekin kontratatuak izatea.

3.2.- **Diruz lagun daitezkeen aseguruak**

FAMarekin kontratatutako aseguruaren artean hurrengo prestazioek baino ez dute jasoko diru-laguntza:

- a) Istripuak eta aldi baterako baliaezintasuna.
- b) Mediku- eta kirurgia-asistentzia (elkargokidearentzat eta lehen graduko zuzeneko senideentzat).

3.3.- **Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa**

Definizio hauek kontuan hartuta:

P= Aurreko urtean ikus-onetsi den proiektu bakoitzeko Elkargoari ordaindu zaizkion eskubideak.

D= Aurreko urtean ikus-onetsi den obretako zuzendaritza bakoitzeko Elkargoari ordaindu zaizkion eskubideak.

Soilik emango da hurrengo kopuruetako txikiena:

- a) Diru-laguntza eskatu duen elkargokideak aurreko idatz-zatian azaltzen diren aseguruak kontratatzeke ordaindu dituen sarien kostua.
- b) P+2D-aren %20.
- c) 1. puntuan zehazten den erantzukizun zibileko aseguruako diru-laguntza edo 2. puntuan zehazten den aholkularitza enpresen erantzukizun zibileko aseguruako diru-laguntza eta idatz-zati honetako aseguruak, guztira, ez dira izango P+D-aren %40 baino gehiago.

3.4.- Diru-laguntza eskatzeko modua

Urte bakoitzeko otsailaren 15 baino lehen, Demarkazioko idazkariak jakinarazpen bat bidaliko dio, ofizioz, aurreko urtean ikus-onetsiren bat egin duen elkargokide bakoitzari; eta jakinarazpen horretan azalduko dio baldintzak betetzen dituela pentsatuz gero diru-laguntza jasotzeko eskabidea egin dezakeela.

Diru-laguntza eskuratu nahi duten elkargokideek eskabidea gutun baten bidez bidaliko diote dekanuari, baita aseguruaren ordainagiriaren kopiak ere; gutuna maiatzaren 31 baino lehen jaso behar izango da Demarkazioan. Sariak urtean zehar banatzen badira, nahikoa izango da apirilaren 30era arte ordaindutako sariaren kopiak bidaltzea eta urteko gainerako hilabeteetan izan den kostua zein izan den adieraztea.

3.5.- Diru-laguntzak emateko modua

Urte bakoitzeko aurrekontuak ezartzean, Zuzendaritza Batzordeak aseguru horiek diruz laguntzeko partida bat gordeko du; hala ere, partidaren banaketa egitean aldaketak egin ahal izango dira, Demarkazioak soberakinak izan duen eta diru-laguntzetarako zenbat eskabide jaso diren ikusi ostean.

Diru-laguntzetarako eskabideak jaso direnean, idazkariak zerrenda batean bildu eta elkargokide bakoitzari dagokionez honakoak azalduko ditu:

- 1- Aurreko 3.3. puntuaren arabera diruz lagunduko den gehieneko zenbatekoa.
- 2- Eskatu den diru-laguntzaren zenbatekoa.
- 3- Onetsi den partidaren eta jarraian zehazten den banaketaren arabera izango lukeen zenbatekoa.

Elkargokide guztiek eskatu duten diru-laguntzaren zenbatekoak aurrekontuetako partidaren zenbateko osoa gainditzen badu, hainbanaketa honelaxe egingo da:

- Diru-laguntzak jarraian azaltzen denarekiko proportzioz ordainduko dira: P+2D-aren zenbatekoa ken 1 edo 2. puntuetan ezarritakoaren arabera ordaindutakoa; harik eta Zuzendaritza Batzordeak onetsi duen gehieneko zenbatekora heldu arte.

3.6.- **Diru-laguntzak jasotzeko modua**

Zuzendaritza Batzordeak diru-laguntzak onetsi ondoren, idazkariak gutun baten bidez azalduko die diru-laguntza eskatu duten elkargokideei zein zenbateko onetsi den eta hori nola ordainduko den:

- Apirilaren 30era arte ordaindutako ordainagiri guztien kostuak berehala ordaindutako dira.
- Abenduan zehar, maiatzaren 1etik azaroaren 30era arte ordaindutako ordainagiri guztiak ordainduko dira, baita abenduan ordaindu beharrekoak ere.

Kasu guztietan, diru-laguntzaren onuradunak ordainagiriaren kopiak bidali behar izango ditu, espedientean gorde daitezela.

Partidak ordaintze aldera idazkariak ordainagiri bat bidaliko dio elkargokideari; bertan, diru-laguntzaren eta PFEZaren atxikipenaren gaineko zehaztapenak emango dira. Elkargokideak izenpetuta itzuli behar izango du gero ordainagiria Elkargora.

4.- **ARAU HAUEN PUBLIZITATEA**

Zuzendaritza Batzordeak arau hauek onetsi eta dekanok berrespena eman ondoren, Demarkazioko elkargokide guztiei emango zaie horien berri.

Demarkaziora ingeniari berri bat sartzen denean, lekuz aldatu delako edo elkargokide izan nahi duelako, arau horien kopia bat emango zaio jakitun egon dadin.

5.- **GUTXIENEO KOPURUEN ALDAKETA**

Zuzendaritza Batzordeak arau hauetako idatz-zatietan zehazten diren gutxieneko kopuruak aldatzeko ahalmena izango du, bizitzaren kostuak gomendagarritzat jotzen duenean.

6.- **KLAUSULA INDARGABETZAILEA**

Arau hauek indarrean jartzen diren unean, 2001eko abenduko aseguruetarako diru-laguntzak emateko arauak indargabetuta geldituko dira.